



Bizikletaz

2. zenb. • 2009ko iraila • Doako argitarapena / Nº2 • Septiembre 2009 • Publicación gratuita



Aktoresa bat bizikletan
Oihana Maritorea
una actriz en bicicleta

Nuestros bidegorris por dentro: Urolako bidegorria

Segurtasun Gomendioak: bizikleta hartu aurretik

Estadística: la utilización de los bidegorris
se dispara de enero a junio

Eritrea, amor por el ciclismo

eta gehiago: berriak,
argazkiak...



Moving, all the people moving

Eskuz idatzitako esaldi batek gure izaera edota gogoia islatzen dituen bezala, lekuz aldatzen ari garenean erakusten dugun portaera ere gure bereizgarri bihurtzen da. Motorrez, pedalez eta, bai, oinez ere. Erabaki desegoki batek, hanka-sartze batek, txulokeri batek, eroaldi batek, haserrealdi batek, buruan daramagun horrek, mp3aren kaskoek barne... denontzako eragina izan dezakete, dute.

Taxizaleak, exekutiboak, txoferrak, kamioizaleak, aristokratak, motxilazaleak, ezer egitekorik ez dutenak, mutikoak, motorzaleak, atsoak, neskatilak, ziklistak, atletak... Gure kezkekin bilduta eta bakarturik, modazko aurreiritziak eta topikoak gure burutik igaroko dira errotulu bat batekoetan: fantasma, sorgina, pijoia, nazkagarria, ergela, atsoa, hezigabea, eroa, astakirtena, lotsagabea, itsua, funtzionarioa, eta abar. Mugikortasunaren ikuspuntutik –bestelako autokritikak sar genitzake–, jarrera honen oinarritzko esanahia zera da: mekanikoki mugitzen garela, gure buruaren eguneko menuari lehentasuna emanez, eta honi presak gehitu behar zaizkio, hanburgesategi bateko patata frijituak bezalakoak direnak. Jarrera indibidualista hau ez da bat etortzen, gustatu edo ez, ekintza soziala den leku aldatzeko ekintzarekin, partekatutako espazioetan mugitzen baikara, geroz eta jendetsuagoak diren espazioetan gainera. Izan ere, momentu horietan ideiak bakarrik izan beharko genuke buruan: mugitzen, ibiltzen, *lekuz aldatzen ari garenean kontzientzia*, maletategian, zakutoan edo erosketa gurdian *erantzukizun* handia daramagulako, berau present eduki edo ez.

Adi egote horrek, zirkulazio araudia ezagutu eta errespetatzeak (baina aldi berean haratago irakurtzen jakinez), sen onak, ahulenari intuiziozko errespetua eskaintzeak, asko hobetu dezake mugitze eta leku aldatzearen ekintza. **Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astea**n gogoeta egin dezagun, kontzientzia gehiago har dezagun mugitzearen ekintzaz. Ez da horren zaila, saia zaitezte pentsatzen ingurukoak lagun, sendi edo seme-alabak dituzuela.

De igual manera que una frase manuscrita evidencia nuestra forma de ser y el estado de ánimo, el modo en que nos comportamos en los desplazamientos también nos caracteriza. A motor, a pedal y, oh sí, también a pie. Una mala decisión, un despiste, una chulería, una locura, un enfado cósmico, lo que sea que llevemos en la cabeza, incluyendo los cascos del mp3... pueden tener, y tienen, consecuencias para todos.

Taxistas, ejecutivos, choferesas. camioneros, aristócratas, mochileros, desocupados, chavales, motoristas, ancianos, quinceañeras, ciclistas, atletas... Ensimismados en nuestras preocupaciones, permitiremos que los prejuicios y los tópicos de moda asignen en el “pasapalabra” de nuestra mente un rótulo instantáneo: fantasma, bruja, pijo, desgraciado, alelado, vieja, maleducado, loca, cuadrúpedo, jeta, cegatón, funcionario, etc. Desde el punto de vista de la movilidad –que cabrían otras autocriticas– el significado esencial de esta actitud es el de que nos desplazamos mecánicamente, otorgando atención preferente al menú del día de nuestra cabeza, más las prisas, que son como las patatas en una hamburguesería. Esta actitud individualista no encaja en un acto social como lo es, nos guste o no, el de movernos en los espacios comunes, cada día más concurridos. Y es que en esos momentos sólo debería de reinar una idea principal en nuestra cabeza: *la conciencia de estar desplazándonos*, porque en el maletero, en las alforjas o en el carrito de la compra portamos todos una gran *responsabilidad*, sintámosla o no presente como mosca tras la oreja. Esa actitud atenta, conocer y respetar las normas de circulación – que no delegar todo en ellas– el sentido común, un respeto intuitivo al más débil, pueden contribuir a mejorar mucho las cosas del moverse. En esta **Semana Europea de la Movilidad Sostenible** reflexionemos y propongámonos ser más conscientes en esto de movernos. No es tan complicado, prueben a pensar que todo el mundo alrededor suyo es un pariente, un amigo, un hijo.

Iraunkortasunaren eta Bizikleta Bideen Atala

Sección de Sostenibilidad y Vías Ciclistas

- Zuzendaritza eta Koordinazioa / Dirección y Coordinación: Garapen Iraunkorreko Departamentua-Bizikleta Bideen Atala / Departamento de Desarrollo Sostenible-Sección de Vías Ciclistas • Testuak / Textos: Koldo Almandoz, Xabier Sagardia (eragin.com)
- Bidegorrien gaineko aholkularitza / Asesoramiento en bidegorris: Ander Irazusta, Luis Del Barrio • Argazkiak / Fotografías: Mikel Saiz, Koldo Almandoz, Xabier Sagardia, Txo!?
- Kontrazaleko argazkia / foto contraportada: Cati Martín
- Diseinua / Diseño: eragin.com • Maketazioa / Maquetación: Igor Astigarraga
- Agitaratzen du / Edita: Garapen Iraunkorreko Departamentua / Departamento de Desarrollo Sostenible

Lege gordailua / Depósito legal: SS-735-2009

Gipuzkoa Bizikletaz

www.gipuzkoabizikletaz.net

bizikletaz@eragin.com

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako plaza, z/g
20004 Donostia-San Sebastián



GIPUZKOA
zurekin, aurrera

GARAPEN IRAUNKORREKO
DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO SOSTENIBLE



Aurkibidea

Índice

Elkarrizketa:
Oihana Maritorena



4-7

Entrevista:
Oihana Maritorena

Erreportajea:
Urolako
bidegorria barrutik



8-11

Reportaje:
Nuestros bidegorris por dentro:
Bidegorri del Urola

Estatistika: Bidegorrien erabilera
urtarriletik ekainera



12-13

Estadística: Así utilizamos los
bidegorris de enero a junio

Argazkitegia:
Bizikletak munduan, Japon



14-15

Álbum de fotos:
Bicicletas en el mundo, Japón

Gomendioak:
Segurtasuna bizikleta hartu aurretik



16-17

Consejos:
Seguridad antes de coger la bici


Arkaitz Villarren esanak



17

Arkaitz Villar en cinco pedaladas

Erreportajea:
Europako Mugikortasunaren Astea



18

Reportaje:
Semana de la Movilidad Europea

Erreportajea: Eritrea, bizikleta
maite duen herrialdea



19-21

Reportaje:
Eritrea, amor por la bicicleta

Berriak



22-23

Noticias

Ba al
zenekien?



23

¿Sabías
que...?

OIHANA MARITORENA

“Zinean auto modernoak erabiltzea da ohitura eta zaila da bizikleta sartzea”

Zineak, oro har, ibilgailu motordunak nabarmendu ditu status baten emaitza gisa. Auto azkarrak, motor potenteak, abiadura... Pelikuletako protagonistak bizikletan ibiltzearenak ez du saltzen antza... Hala ere, kamararen atzean badago bizikletari “gorazarre” egiten dion aktorerik. Ez gara urrun joan behar horietako bat ezagutzeko. Oihana Maritorenaz ari gara. Donostiarra da, 1984an sortua. Telebistarako lan egindakoa da (Euskal Telebistako *Hasiberriak*, *Kilker Dema* eta *Goenkale* telesailak eta Telecincoko *Hospital Central*, besteak beste) eta zineari dagokionean, berriz, hainbat laburmetraiez gain, *Eutsi!* eta *Cosmos* film luzeetan protagonista paperak egin ditu.

Zine asko ikusitakoa zarela irakurri dut. Ezagutzen duzu pelikularik non bizikletak (nahiz eta gai zentrala ez izan) modu batean edo bestean halako presentzia edo garrantzia duen?

Zine asko ikusi dut, bai, baina ez zait bizikleta erabiltzen duen pelikularik bururutzen.

Zinea bitarteko eraginkorra izan liteke bizikleta sustatzeko?

Nik uste dut eraginkorra izan daitekeela, baina gaur egun egiten diren filmeetan ez dut uste asko sartuko dutenik. Auto modernoak erabiltzea da ohitura eta zaila da bizikleta sartzea, beharbada film minoritarioetan errazagoa izan liteke.

Hainbat film laburretan parte hartzeaz gain, *Eutsi!* eta *Cosmos* film luzeetan aritu zara. *Eutsi!*ri dagokionean, bizikleta fabrika bat du abiapuntu eta bertako bi langile protesta egitera doaz Frantziako tourrera. Bederen, kuriosoa bada bizikleta lantegi bateko bi langile izatea protagonistak...

Hala da, bai. Interesgarria izan zen filma tourrarekin loturik egotea, bizikletekin. Nik txikitan tourra beti ikusten nuen eta beraz, berezia izan zen.

Argazkiak / Fotos: Mikel Saiz



“Hiriko txoko guztietara bizikletaz joatea gustatuko litzaidake, eta esango nuke Donostia pixkanaka hori lortzen ari dela”

OIHANA MARITORENA

“En el cine la tendencia es utilizar coches modernos y no bicicletas”



El cine, por regla general, se ha decantado por el rugido de los motores y la velocidad, por la gasolina y los neumáticos quemados por el asfalto, en otras palabras, por los automóviles, que confieren un estatus a quienes los conducen. Sin embargo, detrás de la cámara hay actrices que hacen “alarde” precisamente de lo contrario. Y no hay que irse muy lejos para encontrarnos con una de ellas. Se llama Oihana Maritorea, (Donostia, 1984). Ha trabajado en diversas series televisivas (*Hasiberriak*, *Kilker Dema* y *Goenkale* de Euskal Telebista y *Hospital Central* de Tele 5). En cuanto al cine, además de varios cortometrajes, ha protagonizado dos películas (*Eutsi!* y *Cosmos*).

He leído por ahí que has visto bastante cine. ¿Conoces alguna película en la que la bici tenga una presencia más o menos relevante (aunque no sea el eje central del filme)?

Sí, he visto mucho cine, pero no se me ocurre ninguna película en la que aparezca la bicicleta.

¿Podría ser el cine un medio eficaz para difundir el uso de la bicicleta?

Creo que podría serlo, pero me temo que en los filmes que se hacen hoy en día no se incluye demasiado. La tendencia es utilizar coches modernos, y es complicado ver bicicletas. Quizá sería más fácil en las películas minoritarias.

“Intento respetar a los peatones yendo despacio y tratando de entorpecer lo menos posible”

Además de participar en un sinfín de cortometrajes, has tenido dos papeles relevantes en los largometrajes *Eutsi!* y *Cosmos*. En cuanto a *Eutsi!*, el punto de partida es cuando menos curioso: dos trabajadores de una fábrica de bicicletas llevan su reivindicación laboral al tour de Francia...

Así es, sí. Fue interesante que el filme estuviera relacionado con el tour, con las bicicletas. De pequeña, yo siempre veía el tour, por lo que fue especial.

Eutsiko dio Bizikletak antza egun bizi duen hazkundeari?

Hala uste dut nik. Jendeak gero eta kontzientzia handiagoa du garraio publikoen erabilerari buruz eta hiri nahiz herrietan gero eta erraztasun gehiago jartzen ari dira, beraz hazkundeak jarraituko duela esango nuke. Oso eroso da zenbait herritan bizikletaz ibiltzea.

Bizikleta ohiko garraio gisa erabiltzen duzu. Nondik nora zoaz bizikletaz zoazenean? Zer nolako desplazamenduak egiteko erabiltzen duzu?

Egunero lanera joateko erabiltzen dut. Goizetan Grosetik Alde Zaharrera, eguerdian Alde Zaharretik Grosera eta arratsaldean Antiguara.

Zer nolako bizikleta erabiltzen duzu?

Momentu honetan lagun baten bizikleta erabiltzen ari naiz, ez da paseoko bizikleta, eta marka ere ez du ezaguna.

Zein da zure arrazoi nagusia bizikletaz ibiltzeko?

Erosotasuna eta denbora aurreztea. Donostiatik ibiltzeko oso eroso da, distantziak ez dira luzeak eta gainera laua da. Horrez gain, denbora aurrezten da, ez baita autobusen menpe ibili behar ez ezer.

Zenbateko maiztasunaz erabiltzen duzu?

Lanean nagoenean egunero, eta oporretan gutxiago.

Poltsikoan nabaritzen al da bizikletaz ibiltzea?

Nik, egia esan, asko ez dut nabaritu orain arte oinez egiten bainuen dena, baina ziur nago poltsikoan ere eragin positiboa duela bizikletan ibiltzeak, autobusa eta kotxea erabiltzea garestiagoa baita.

Nola konpontzen zara oinezkoekin?

Ondo moldatzen naiz. Bidegorritik joaten naiz ia beti, eta joaten ez naizenetan oinezkoak errespetatzen saiatzen naiz, mantso joan eta ahal den gutxien oztapatuz.

Zure ustez, auto gidariekin ziklistak errespetatzen dituzte?

Ni gutxitan joaten naiz errepidetik eta ez dakit asko horren

inguruan. Hori bai, zebra bideetan pasatzerako garaian ez dira geratzen ziklistak pasatzeko, eta horrek amorratu egiten nau.

Zer nolako hiria gustatuko litzaizuke izatea?

Hiriko txoko guztietara bizikletaz joatea gustatuko litzaidake, eta esango nuke Donostia pixkanaka hori lortzen ari dela.



Elkarrizketatu ditugun erabiltzaile donostiar guztiek euren bizikleta lapurtu dietela esan digute, batzuei behin baino gehiagotan. Zuri lapurtu dizute inoiz bizikleta?

Behin lapurtu zidaten bai, eta harrezkero lagun baten bizikletarekin ari naiz. Beste bat erosi beharko banu uste dut bigarren eskuko bat hartuko nukeela, Donostian asko lapurtzen baitira. Gainera, jendeak izorratzeko asmotan lapurtzeaz gain, izorratu ere egiten ditu, niri behin gertatu zitzaidan.

¿Crees que la bicicleta conseguirá meterse en la escapada buena, como parece que está sucediendo?

Creo que sí. La gente cada vez está más concienciada en torno a la utilización del transporte público y en los pueblos y ciudades cada vez están poniendo más facilidades, así que creo que seguirá creciendo. En algunas localidades es muy cómodo andar en bici.



Utilizas la bici como medio de transporte habitualmente. ¿Qué tipo de desplazamientos realizas con ella?

La utilizo a diario para ir a trabajar. Por las mañanas de Gros a la parte vieja, al mediodía de la parte vieja a Gros y por la tarde de Gros al Antiguo.

¿Qué tipo de bicicleta utilizas?

En estos momentos estoy utilizando la bicicleta de un amigo. No es una bicicleta de paseo y la marca tampoco es conocida.

¿Cuál es la razón principal por la que utilizas la bicicleta?

Comodidad y ahorro de tiempo. Es muy cómoda para andar por Donostia, las distancias no son grandes y además es plano. A parte de eso, se ahorra tiempo, ya que tampoco dependes de los autobuses, ni nada.

Con qué frecuencia la utilizas?

Cuando trabajo, todos los días; en vacaciones menos.

¿Ha notado tu bolsillo el hecho de que te desplaces en bici?

La verdad es que no demasiado, ya que hasta ahora me desplazaba andando, pero estoy segura de que andar en bici tiene efectos positivos para el bolsillo, ya que es más caro ir en autobús o en coche.

¿Tienes problemas con los peatones?

Me arreglo bien con ellos. Voy casi siempre por el bidegorri, y cuando no lo hago, intento respetar a los peatones yendo despacio y tratando de entorpecer lo menos posible.

¿Crees que los conductores respetan a los ciclistas?

Voy poco por carretera, y no se mucho acerca de eso. Eso sí, no se detienen en los pasos de cebra para dejar pasar a los ciclistas, y eso me disgusta.

¿Qué tipo de ciudad te gustaría tener?

Me gustaría poder ir a todos los rincones de la ciudad en bicicleta, y diría que Donostia lo está consiguiendo poco a poco.

Todos los ciclistas donostiarras a quienes hemos entrevistado nos han dicho que les han robado la bici alguna vez. ¿Es tu caso también?

Sí, una vez me la robaron, y desde entonces utilizo la bici de un amigo. Si tuviera que comprar otra bici creo que sería una de segunda mano, porque en Donostia se roban mucho. Y además de robarlas, también hay quien las estropea, a mí me pasó una vez.

Más entrevistas en www.gipuzkoabizikletaz.net



Urolako bidegorria, trenaren bidetik Bidegorri del Urola, por la senda del ferrocarril

Bidegorri bakoitzak ezaugarri berezi eta bereizgarriak ditu. Inguruneak, bidegorriaren ezaugarri propioek eta erabiltzaileek ematen diote nortasuna bidegorri bakoitzari. Kasu honetan, gainera, hurbil egon arren izaera propioa duten bi herri batzen ditu 4 kilometroko luzera duen bide ziklista honek. Azpeitia-Azkoitia bidegorria 2007. urtean ireki zen, eta hasiera hasieratik izan zen bide arrakastatsua. Egun osoan oinezko zein txirrindularien joan etorrien testigu da eta datuei erreparatuta, erabiltzaile gehien duen bidegorria dela esan genezake.

Cada vía ciclista tiene sus señas de identidad específicas. El entorno, las características propias del camino y el uso que los usuarios hacen del mismo marcan la identidad de cada bidegorri. En este caso, además, el bidegorri de 4 kilómetros de recorrido une dos poblaciones cercanas entre sí, pero con identidades propias y muy marcadas. La vía Azpeitia-Azkoitia se inauguró en 2007 y desde el comienzo fue todo un éxito. Peatones y ciclistas hacen uso diariamente de este camino y podemos decir, con los datos en la mano, que es el bidegorri con mayor número de usuarios de Gipuzkoa.

Argazkiak / Fotos: Koldo Almandoz





Urolako trenaren bideari jarraiki eraiki zen bidegorri hau, beraz bidearen luzera osoan apenas du aldaparik. Trenak garai batean egiten zuen ibilbidetik bizikletaz edo oinez mugitu ahal izateak ukitu bereizgarri nabarmena ematen dio bide honi. Urolako trenbide zaharraren oinarria desagertu egin da Loiolako basilikako bazterretatik, beraz ingurune honetan bidegorriak santutegiko kanpo aldeko urbanismoarekin bat egiten du. Urolako trenbidea eta Loiolako basilika dira hain zuzen ere bidegorri honi izaera berezia eta balio erantsi nabarmena ematen diotenak. Horrekin batera bi herri eta gune urbano lotzen dituen bide ziklista honek, paisaia eder eta natura aberatsaz gozatzeko aukera ematen du.

Bidegorriak bide zuzen eta luzeak ditu, eta bazterretan landa berdeak, arbolak eta altzari urbano ugari topatuko du erabiltzaileak. Gainera, zubien azpitik pasatzeko aukera eta bide batez, maratoi amaigabeen lasterka dabilen Diego Gartzia atletaren omenez bidegorriaren alboan jarritako eskulturari animoak emateko aukera izango du.

Atmosfera berezia

Inguruko bizilagunek aurretik erabiltzen zuten bide hau, baina bidegorriaren eraikitzeak are azkoitiar eta azpeitiar gehiago erakarri ditu berau erabiltzera. Horren frogarik adierazgarriena, iaz, bidegorri honek 520.000 erabiltzaile izan zituela. Beste modu batera esanda,



Este bidegorri se construyó sobre las vías del antiguo ferrocarril del Urola, por lo tanto, no hay desniveles bruscos en su recorrido. Recorrer en bicicleta o caminando la antigua vía del tren es una sensación única. Cuando llegamos a la basilica de Loiola, el trazado del tren desaparece y el bidegorri se integra en el urbanismo propio del santuario. Precisamente, son el tren del Urola y la basilica las que dotan de las señas de identidad propias a este bidegorri. Pero además, esta vía ciclista-peatonal une las dos poblaciones antes mencionadas recorriendo paisajes y parajes naturales de gran belleza. El bidegorri tiene largos trayectos en recta y a sus lados encontramos verdes campos, árboles, fuentes y numerosos bancos y mobiliario urbano donde descansar. Además, nos ofrece la posibilidad de recorrerlo atravesando algunos puentes y, de paso, saludar y animar a Diego Gartzia, atleta que corre ahora un infinito maratón en forma de bella estatua.

Una vía especial

Los habitantes de la zona ya venían utilizando este trazado, pero la construcción de la vía ciclista ha contribuido a que todavía sea más popular entre los azpeitiarras

egunero 1.423 pertsonok erabili zutela eta egun Gipuzkoako bidegorririk erabiliena dela zalantzarik gabe.

Lau metroko zabalera duen bidea bitan dago banatuta. Bi metro oinezkoentzat eta beste bi txirrindularientzat. Bidegorria oinezko askok erabiltzen badu ere, gorantz doa, eta azkar gainera, txirrindularien erabilera kopurua. Asteburutan %35eko gorakada izaten du bizikleten erabiltzaileen kopurua oinezkoena %16 jaisten den bitartean. Bidegorri honen beste bereizitasun nabarmen bat iluminazioan dago. Bidegorria osoan zehar argiak jarri zituzten eta arrats partean eta gauz ibiltzeko aukera ematen du.



Azpeitia-Lasao

Laster, beste bidegorri batetaz gozatzeko aukera izango dugu inguruan. Azpeitia-Lasao bidegorri proiektuaren erredakzioa amaitu berri da eta lanen hasiera 2010erako aurreikusten da. Ia 5 kilometroko luzera izango du bidegorri berri honek eta 4 metroko zabalera. Azpeitia eta Lasao lotuko ditu. Apenas aldaparik izango duen bidea izango da eta Anardi eta Badiolegi industria gunek zeharkatuko ditu.


y azkoitiarras. La prueba concluyente de esta afirmación es que el año pasado, los contadores de este bidegorri captaron la cifra de 520.000 usuarios, dicho de otra manera, diariamente 1.423 personas hicieron parcial o totalmente el recorrido. Es, por lo tanto y sin duda alguna, la vía más utilizada de Gipuzkoa. Este bidegorri de cuatro metros de anchura está segregado. Dos metros para los usuarios de bicicleta y otros dos para los peatones. El número de peatones es mayor, pero el de ciclistas está creciendo a grandes pedaladas. Los fines de semana, por ejemplo, los usuarios de la bicicleta aumentan un 35% mientras que los peatones descienden un 16%.

El recorrido está iluminado perfectamente y esto posibilita la utilización del bidegorri tanto al atardecer como de noche.

Azpeitia-Lasao

Pronto podremos disfrutar de otro bidegorri en la zona. Acaba de concluir la redacción del proyecto de bidegorri Azpeitia-Lasao y el inicio de las obras está previsto para el 2010. El bidegorri tendrá casi 5 km y 4 m de ancho. Unirá Azpeitia y Lasao y, sin apenas desnivel, atravesará los polígonos industriales de Anardi y Badiolegi.





LOS NÚMEROS DE AZPEITIA-AZKOITIA ZENBAKITAN

- Luzera / Longitud: 4 Km.
- Zabalera / Ancho: 4 metros. 2 m bicicletas, 2 m peatonal.
 - Erabiltzaileak 2008an / Usuarios en 2008: 520.000
 - Erabiltzaileak batz beste / Promedio de usuarios: 1.423/día
- Oinezkoak batz beste / Promedio porcentaje de peatones: 83%
- Ziklistak batz beste / Promedio porcentaje de ciclistas: 17%
- Oinezkoak batz beste lanegunetan / Porcentaje peatones día laborable: 86%
- Ziklista batz beste lanegunetan / Porcentaje ciclistas día laborable: 14%
- Oinezkoak batz beste asteburuan / Porcentaje peatones fin de semana: 77%
- Ziklistak batz beste asteburuan / Porcentaje ciclistas fin de semana: 23%


Bizikletaren erabilera hirukoiztu da urtarriletik ekainera

2009ko urtarriletik ekainera bitartean %238 igo da bizikletaren erabilera Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak kudeatzen dituen bederatzita bidegorritan. Igoera ikusgarria da. Oinezkoek ere gora egin dute nabarmen: %77. Zalantzarik gabe, eta bestelako faktore batzuekin batera, eguraldiaren hobetzeak eta uda partearen etorrerak lagundu dute igoera garrantzitsu honetan.

Gakoak

- 2009ko urtarrilean, kontagailuak dituzten 9 bidegorrietan, 91.000 erabiltzaile inguru zenbatu ziren. Horietatik 74.000 oinezkoak izan ziren eta 17.000 ziklistak. Bost hilabeteren buruan, ekainean alegia, bide tarte berdinetan 190.000 erabiltzaile zenbatu ziren, horietatik 130.000 oinezkoak eta 60.000 txirrundulari izan zirelarik.
- 2009ko urtarriletik ekainera 900.000 desplazamendu egin dira aipatutako bederatzita bidegorrietan. Hauetatik, %24 ziklistek egindakoak izan dira eta %76 oinezkoek.
- Urteko lehen sei hilabeteetan, erabiltzaileen (ziklistak eta oinezkoak) kopuruak %107 egin du gora. Zifra absolutuei erreparatzen badiegu, erabiltzaile kopuru handienak oinezkoekie dagokie. Hala ere, aipatu sei hilabeteetan, ziklisten igoera oinezkoen hiru halakoa baino gehiago izan da. Ziklistek %238 gora egin dute eta oinezkoek %77.

Bidegorrien erabilpena bizikletaz
Utilización de bicicletas en bidegorris



Kontagailuen bitartez Behatokiak bildutako informazioa eta ondotik datuokin lortutako emaitza estatistikoek eta bidegorrietan bertan egindako inkestek, bide ziklista bakoitzaren kontzepzio, diseinu, kontserbazio eta arauketa egokia egiteko balio dute. Xedea bide bakoitzaren ezaugarriak "ulertzea" da eta gailentzen den erabileraren arabera kudeatzea, hots, kasu batzuetan eguneroko garraiora bideratuz eta beste batzuetan aisialdira.


Gipuzkoako bidegorrien erabileraren inguruko informazioa osatu nahi baduzu, www.gipuzkoabizikletaz.net ataria bisita dezakezu.

Se triplica el uso de la bici de enero a junio



De enero a junio de 2009, la utilización de la bicicleta en nueve vías ciclistas gestionadas por el Departamento de Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha experimentado una subida espectacular. El número de desplazamientos sobre dos ruedas ha crecido un 238%, mientras que los realizados a pie han aumentado un 77%. Sin duda, la bonanza del clima y la cercanía de la época estival, entre otros factores, han propiciado esta fuerte subida.

Urtarrila-Ekaina erabilera
Utilización Enero-Junio



Las claves

- En enero de 2009, en el conjunto de los 9 tramos observados se contabilizaron cerca de 91.000 usuarios, de los que 74.000 fueron peatones y unos 17.000 ciclistas. Cinco meses más tarde, en junio, en esos 9 tramos hubo 190.000 usuarios, de los que más de 130.000 fueron peatones y unos 60.000 ciclistas.
- De enero a junio de 2009 se han producido en torno a 900.000 desplazamientos en el conjunto de las 9 vías. El 24% ha correspondido a ciclistas y el 76% a peatones.
- Los primeros seis meses del año ha aumentado el número de usuarios (bicicletas y peatones) en un 107%. Aunque atendiendo a las cifras absolutas los peatones son los que más utilizan los bidegorris, el uso de la bicicleta en los seis primeros meses del año ha crecido más del triple con respecto a los peatones: mientras que los ciclistas crecieron un 238%, los peatones lo hicieron en un 77%.

La información obtenida por el Observatorio a través de los contadores y su posterior tratamiento estadístico, junto con los datos recogidos a través de encuestas a pie de bidegorri, aportan el conocimiento necesario para mejorar la concepción, diseño, conservación y correcta regulación de cada una de las vías ciclistas de forma individualizada. Se trata de "entender" el comportamiento de cada vía y de gestionarla conforme a su vocación de uso, más orientada al transporte cotidiano en unos casos o al recreo en otros.

Si quieres completar la información sobre la utilización de las vías ciclistas de Gipuzkoa, puedes visitar el portal www.gipuzkoabizikletaz.net

Bizikletak munduan

Argazkiak:
Txo!?

Japon

Tokyo & Kyoto





Zure bizikleta-argazkiak bidali bizikletaz@eragin.com helbidera eta gure web atarian edo aldizkarian argitaratuko ditugu.

Envíanos tus fotografías de bicis a bizikletaz@eragin.com y las publicaremos en la web o en la revista.

Segurtasun gomendioak bizikleta hartu aurretik

Bizikleta ibilgailu mekaniko bat da. Horregatik, hartzen dugun bakoitzean segurtasun frogaketa sinple batzuk egitea komenigarria da. Akats mekanikoek eragindako istripuak gutxituko ditugu eta bizikleta zainduagoa izango dugu.

Argazkiak / Fotos: Xabier Sagardia



- Torloju guztiak behar bezala estutuak daudela begiratu.
- Koadroa begiratu ea pitzadurarik daukan, batez ere eserlekua eta eskulekuaren ondoan dauden zatietan.
- Atzeko eta aurreko galgei sakatu. Balaztaren heldulekuari eragin eta eskulekura heldu baino lehen galgatu ez badu, doitu kablea edo pastillak aldatu.
- Galga-pastillak higituak dauden konprobatu.
- Kableak eta estalkiak hautsi edo hondaturik dauden konprobatu.
- Eskulekua gurpilearekin bat datorrela egiaztatu. Mugitua badago edo askatua badago, torlojuak estutu.
- Martxak aldatu eta kanbioa ongi doan egiaztatu. Katea ongi doan begiratu.


Consejos de seguridad antes de coger la bici

La bicicleta, como cualquier otra máquina, está sujeta al desgaste o al desajuste de sus componentes. Por eso es conveniente realizar unas sencillas comprobaciones antes de cogerla. Reduiremos el riesgo de accidente y tendremos la bici bien cuidada.

- Comprobar que todos los tornillos están bien apretados.
- Comprobar que el cuadro no tenga ninguna grieta. Sobre todo hay que mirar en la parte del manillar y bajo el sillín.
- Comprobar los frenos delantero y trasero. Si no ha frenado antes de que la maneta haya realizado todo su recorrido, hay que ajustar el cable o comprobar el estado de las pastillas.
- Comprobar el estado de las pastillas de freno.
- Comprobar si los cables y sus fundas están en buen estado.
- Comprobar que el manillar esté paralelo a la rueda delantera o si está algo suelto para ajustarlo correctamente.
- Cambiar las marchas y comprobar si el cambio funciona correctamente. Hacer lo propio con la cadena.

- Pinoi eta platoaren hortzak higatuak dauden konprobatu.
- Gorpila ongi puztuta dagoela egiaztatu.
- Pneumatikoak konkorrak dituen konprobatu. Kokorrak baditu lehertzeko arrisku gehiago dago.
- Pneumatikoak higatuak dauden begiratu. Errodadura banda edo zerrenda higatuta badago, gorpila lehertu edo deformatu daiteke. Gorpilaren eta zoruaren arteko itsaspena murriztuko da.
- Pneumatikoak pitzatuta ditugun aztertu. Gerta liteke gure pneumatikoak zartatzea.
- Hagunak aldizka begiratu, higatu eta apur daitezkeelako.

Trikimailu eta aholku gehiago www.gipuzkoabizikletaz.net atarian.



- Comprobar el desgaste de los dientes de piñones y platos.
- Comprobar la correcta presión de los neumáticos.
- Comprobar si hay abultamientos o deformidades en los neumáticos para evitar reventones.
- Comprobar el desgaste de los neumáticos. Si la banda de rodadura está desgastada aumenta el peligro de pinchazo o deformación, además de perder adherencia.
- Observar si los neumáticos están agrietados, síntoma inequívoco de que el neumático no está en buen estado.
- Revisar la llanta periódicamente, ya que también ésta puede deteriorarse.

Más trucos y consejos en www.gipuzkoabizikletaz.net



ARKAITZ VILLAR kazetaria eta dj - periodista y dj

“Bizikletaren aldeko apustuan, lehen pausua norberak eman behar duela uste dut”

“Ando a gusto en bicicleta y con eso me conformo. Llego a todos los sitios rápido y con facilidad”

“Oso gustuko dut gauz kalean etxerako bidean bizikletan noala etxeetako argiak kaletik ikustea”

“Donostia es una ciudad muy peatonal y muy plana. Por lo tanto, es muy adecuada para andar en bici, y la gente la utiliza mucho”

“Gure hiriburuak ez daude bizikletetara ohituta, ezta jendea ere”

Elkarrizketa osoa irakurri nahi baduzu www.gipuzkoabizikletaz.net atarian aurkituko duzu.

Si quieres leer la entrevista completa puedes hacerlo en www.gipuzkoabizikletaz.net

Nuevos tramos ciclistas en la Semana de la Movilidad

El calendario está lleno de días dedicados a la sensibilización y reflexión sobre asuntos y problemas que atañen a colectivos concretos o a la sociedad en su conjunto: Día mundial sin tabaco, Día mundial del donante, Día mundial del refugiado...

El medio ambiente no es ajeno a estas jornadas de sensibilización y tiene asignadas unas cuantas fechas: Día sin coches, Día internacional de la diversidad biológica y, por supuesto, la **Semana Europea de la Movilidad Sostenible**, que desde 2002 persigue la concienciación, sensibilización y reflexión de la ciudadanía en torno a los hábitos y usos de desplazamiento individuales y colectivos y que se sustenta en una premisa que todavía hoy dista de hacerse realidad: la sustitución del automóvil por modos de movilidad menos agresivos con el medio ambiente: el transporte urbano, la bicicleta o los desplazamientos a pie.

Coincidiendo con la efeméride, la Diputación Foral de Gipuzkoa hace balance e informa de todo lo realizado en materia de movilidad ciclista a lo largo del último año. Por un lado, está prevista la apertura al servicio público de cuatro nuevos tramos pertenecientes a la Red básica foral de vías ciclistas de Gipuzkoa:

- **Eskoriatza-sur:** Vía ciclista-peatonal de 1 km de longitud que unirá la glorieta de Aingeru Guarda con el viario urbano de Eskoriatza en Hidalga kalea. Este tramo es paralelo en su mayor parte a la GI-627 (Variante de Eskoriatza).
- **Elgoibar-Maltzaga:** Este tramo de 2,6 km, parte de Elgoibar y termina tras pasar bajo la A-8, por lo que se trata, de momento, de un recorrido de ida y vuelta. En una fase posterior está previsto estudiar la conexión de este tramo de vía ciclista con Soraluze y Eibar.

- **Segura-Zegama I fase:** Tramo de 1,5 km que discurre desde la salida del casco de Segura hasta el cruce del barrio de Kortaberria.
- **Conexión con Segura:** Una pequeña conexión que une el tramo de vía ciclista proveniente de Idiazabal en dirección a Segura con el bidegorri del paseo Madura en Segura.

Por otro lado, además de la publicación del número 2 de la revista *Bizikletak* (que tienes entre tus manos), se va a reeditar una presentación multimedia con información actualizada de la Red Básica Foral construida y del Observatorio de Vías Ciclistas de Gipuzkoa sobre el uso de los bidegorris. Se puede consultar en las siguientes direcciones: www.gipuzkoaingurumena.net y www.gipuzkoabizikletak.net.



BIDE TARTE BERRIAK ETA AURKEZPEN MULTIMEDIA

Mugikortasunaren astearekin bat eginez, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat ekintza antolatu ditu. Alde batetik, Eskoriatza-hegoaldea, Elgoibar-Maltzaga eta Segura-Zegama (lehen fasea) bide tarteak eta Segurarekin lotura (Idiazabaletik datorrena) publikora irekitzea aurreikusten da. Bestalde, bidegorrien erabilerari buruzko aurkezpen multimedia berritua egin da. Helbide hauetan aurki dezakezue: www.gipuzkoaingurumena.net eta www.gipuzkoabizikletak.net.

Eritrea, bizikleta maite duen herrialdea

Eritrea, un país que ama la bicicleta

Etiopiatik banatu zenetik ez du bakerik izan Eritreak. Hala ere, Afrikaz hitz egiten dugun bakoitzean guda, lehortea, gosea eta korrupzioa bezalako hitzak besterik ez ditugu entzuten. Guk maitasunaz hitz egin behar dugu. Herrialde gazte honek bizikletarekin duen maitasun istorioaz.

Desde que se independizó de Etiopia, Eritrea no ha conocido la paz. Cada vez que hablamos de África las mismas palabras fluyen una y otra vez: guerra, sequía, hambre, corrupción... Pero nosotros vamos a hablar de amor. De la historia de amor entre este joven país y la bicicleta.



Afrikako adarrean kokatua badago ere, Eritrea "uharte" bat da. Bertara hurbiltzen diren turista urriek depresioak jota dagoen hiriburu bat topatuko dute, Asmara, eta makilaz gobernaturiko herrialde bat. Gainera, Etiopiako bizilagunekin aspaldidanik duten ezinikusia borroka armatu ezberdinak sortzen ditu tarteka.



Baina ingurune hau bisitatzen duena beste zerbaitetaz jabetzen da berehala. Toki guztietan bizikletan dabilen

A pesar de que está situado en el cuerno de África, Eritrea es una "isla". Los pocos turistas que se acercan allí se encontrarán con una capital, Asmara, hundida por la depresión y un país gobernado con mano de hierro. Además, su enemistad con sus vecinos etíopes genera conflictos armados entre ambos países. Pero el que visita Eritrea enseguida se percata de algo distinto. Por doquier verá gente andando en bicicleta: vestidos de traje y

jendea ikusiko du; trajez jantzita eta hiriko kaleetan zehar euren bizikleta zaharrak motel mugitzen dituzten gizon edadetuak batetik eta *Snow Lion* markako mendi bizikleta merkeak gidatzen dituzten gaztetxoak bestetik. Bizikletak konpontzeko denda eta postuak edozein kaletan eta errepide bazterretan aurkituko dituzu. Eta beste inon ez duzu topatuko bizikleta ezberdinen zatiekin eginiko bizikleta mestizorik.

Eguneroko bizitzan eritrearrek egiten duten bizikleten erabilera harritu gaitu. Herrialde behartsu batean gaudenez, beharrak eragindako bizikleta erabilera bat dela pentsa genezake. Okerreko hausnarketa da. Afrikako zein beste herrialdetan ikus daiteke telebistan eta zuzenean Frantziako Tour-a edo Italiako Giroa? Asmaran, 800 txirrindularik baino gehiagok hartzen du parte lehiaketetan. Astebururo, hiriburuan antolatzen diren lasterketetara milaka pertsona inguratzen da (eta sarrera ordaintzen du!) lasterketak ikusi eta euren talde kuttuna txalotzera. Eritrean, txirrindulariak dira kirol izar nagusiak.

moviendo con parsimonia sus viejas máquinas los más mayores, conduciendo sus *Snow Lion*, bicicletas de montaña baratas, los jóvenes. Hay talleres de bicicletas y tiendas en cualquier calle, en cualquier revuelta de la carretera. Y el visitante no encontrará en ningún otro sitio bicis mestizas hechas con piezas de otras máquinas. Sorprende la utilización que de la bicicleta hacen los eritreos en su vida diaria. Como estamos ante un país pobre, podríamos pensar que su presencia en las calles se debe a la necesidad, pero se trata de una lectura errónea. ¿En qué otro país de África se puede ver por televisión y en directo el Tour de Francia o el Giro de Italia? En Asmara, más de 800 ciclistas participan en las diferentes competiciones que tienen lugar con regularidad. A las carreras que se organizan todos los fines de semana en la capital se acercan miles de personas (pagando entrada!) para aplaudir a sus equipos favoritos. En Eritrea, los ciclistas son las estrellas deportivas más aclamadas.



Italiarren oinordetza

Katedral katoliko eta kaputxino kafearekiko duten zaletasunarekin gertatzen den moduan, ziklismoari dioten maitasuna italiarrek utzi zieten euren garai kolonialean. Lehendabiziko Eritreako Giroa 1946an burutu zen eta eritrear jatorriko txirrindulariei ez zieten parte hartzen utzi. 2001. urtean, independentzia lortu eta 8 urtera (Etiopiatik banandu ziren), 10 egun eta 1.200 kilometro inguruko lasterketa antolatu zuten eta egun herrialdeko kirol gertakizunik handiena da. Iaz,

Herencia italiana

Igual que ocurre con su afición por las catedrales católicas y el café capuchino, su amor por el ciclismo es una herencia de la época colonial italiana. El primer Giro de Eritrea se celebró en 1946, aunque se prohibió la participación de los corredores de origen eritreo. En 2001, 8 años después de su independencia de Etiopía, organizaron una carrera de 10 días y alrededor de 1.200 kilómetros. Hoy en día sigue siendo el acontecimiento deportivo más importante del país.

Bizikletak konpontzeko denda eta postuak edozein kaletan eta errepede bazterretan aurkituko dituzu. Eta beste inon ez duzu topatuko bizikleta ezberdinen zatiekin eginiko bizikleta mestizorik



En Eritrea, los ciclistas son las estrellas deportivas más aclamadas. ¿En qué otro país de África se puede ver por televisión y en directo el Tour de Francia o el Giro de Italia?

97 parte hartzaileetatik, guztiak ziren Eritreako semeak bat izan ezik. Poliziak irekitzen dituen bideetan txirrindulariek herri ezberdinetako bizilagun eta soldaduen "forza!" eta "bravo!" oihuak entzuten dituzte nonahi.

Nazioarteko txirrindulari profesionala izateko meharra eta muskulu gogorreko zangoak behar dituzu.

Eritrearrak ez dute apenas muskulurik, eta ez dute nazioartean lehiatuko den izarrik, baina ziurrenik ez da munduan txirrindularitza Eritrean bezain beste maite den herrialderik.

El año pasado, de los 97 corredores participantes, sólo uno era extranjero. Por el trayecto que va abriendo la policía, los ciclistas reciben los vítores –¡forza!, ¡bravo!– de los ciudadanos y de los soldados.

Para llegar a ciclista profesional en el pelotón internacional hay que ser delgado y tener unas piernas musculosas. Los eritreos apenas si tienen músculos, y tampoco poseen una estrella que compita en el ámbito internacional, pero seguramente no hay en el mundo un país donde se ame tanto el ciclismo como Eritrea.

Obras en doce tramos de la Red Básica Foral de Vías Ciclistas de Gipuzkoa

En estos momentos se están realizando diversas obras en doce tramos de la Red Básica Foral de Vías Ciclistas. En **Tolosa-Alegia** se mejorará el trazado en la entrada al polígono Arzabalza y en el cruce sobre la carretera en Altzo-Azpi con la realización de un paso inferior. Se completarán y mejorarán el firme, la zona del canal, la iluminación y las señales. Asimismo, en el bidegorri **Azkoitia-Zumarraga** se efectuará el acondicionamiento definitivo del firme de este tramo recreativo. Se utilizará un nuevo tipo de firme, de aspecto natural y gran solidez.

También se están construyendo cuatro nuevos tramos: el primero, **Beasain-Salbatore**, pertenece al itinerario 6 de la Red de Vías Ciclistas de Gipuzkoa y discurre entre la salida del casco de Beasain y el cruce de Salbatore (Ormaiztegi), conectando con varias zonas industriales y posibilitando el acceso ciclista-peatonal a los trabajadores. Enlaza con el bidegorri existente Salbatore-Ormaiztegi. El segundo, **Ordizia-Zaldibia**, pertenece al itinerario 3 de la Red, y parte del interior del casco de Ordizia, cruzando con sendas pasarelas el río Oria, el ferrocarril y la N-1 hasta llegar a la salida hacia Zaldibia. El tercero, **Añorga txiki-Errekalde** en colaboración con Eusko Trenbide Sarea; y el cuarto, **Puente hipódromo de Lasarte-Zubieta** en colaboración con el ayuntamiento de Donostia-San Sebastián. Próximamente se iniciarán las obras de construcción de los tramos siguientes: **Eskoriatza-cementerio**, **Soraluze-Mekolalde**, **Bergara-Antzuola** 1ª y 2ª fase y **Kortaberria-Zegama**. También se procederá a mejorar el vallado del bidegorri de **Leitzaran** y a iluminar el tramo **Asteasu-Zizurkil**.



Ordizia-Zaldibia



Tolosa-Alegia

Donostiak 55 kilometrotik gorako bidegorri sarea izan nahi du 2010ean

Abuztuaren hasieran, Morlans-eko tunelen irekiera ekitaldian, Odon Elorza Donostiako alkateak plan berri bat iragarri zuen, zeinaren bitartez 10 kilometro gehiago gehituko zaizkion hiriburuko bide ziklista sareari. 55 eta 60 kilometro artean handitu nahi da bidegorri sarea datorren urtean. Ekitaldi berean, udaleko arduradunek adierazi zuten azken urteetan bizikletaz egindako desplazamendu kopurua %1,7tik %2,6ra pasa dela.



Bike Crossing, bizikletak "askatzeko" esperientzia

Etxean erabili gabe duzun bizikleta konpondu eta kalean uztea ("askatzea") edonork erabili dezan da, funtsean, Bike Crossing deritzon ekimena. Oinarrian, edonori bizikleta bat izateko aukera ematea da eta, bide batez, hondatuta edo hautsez beteta dauden bizikletak zirkulazioan jartzea erabiliak izan daitezten. Ziklismoa sustatzeko modu xeblebre hau *Book Crossing* deritzon esperientzian oinarrituta dago: liburu bat kalean uzten da edonork hartu eta irakur dezan. Liburuen kasuan baina, alearen segimendua egiteko sistema bat badago, eta liburua bueltan ematen da. Bike Crossing-ean aldiz, ez dago itzulketara bermatzerik, bizikleta hartzen duenak bere etxera eramango du (edo berriz kalera itzuliko hala nahi izanez gero), modu anonimoan egiten baita prozesu guztia. Zalantza da ea nork hartuko duen bizikleta, benetan behar duen pertsona batek edo... Estatuan dagoeneko hainbat bizikleta askatu dituzte. Honen guztiaren informazioa eta argibideak ondoko helbide honetan aurkituko dituzue: www.bike-crossing.org



www.bike-crossing.org

La bicicleta, también para leer

Son cada vez más las publicaciones (revistas, libros de ficción, ensayos) y páginas en internet que giran en torno a la bicicleta. El interés creciente que suscita este medio de locomoción, seguramente, así lo requiere. Así que vamos a dar algunas referencias que creemos interesantes, aunque nos ceñiremos al papel escrito. Por un lado, el antropólogo y etnólogo francés Marc Augé ha publicado el libro *Elogio de la bicicleta* (editorial Gedisa), en el que constata la vuelta con fuerza de la bicicleta al entorno urbano. Según Augé, "el ciclismo es un humanismo que abre con renacidos bríos las puertas de la utopía y de un futuro más esperanzador" (podéis ampliar esta información en la sección de Noticias de nuestra web). Por otro lado, desde el mundo de las letras vascas nos llega otra noticia editorial. Ines Goikoetxea ha ganado recientemente el primer premio del concurso de relato corto de la editorial Beta en su modalidad de euskera con su trabajo *Bizikleta baten abenturak* (Las aventuras de una bicicleta), que es, en realidad, un homenaje a una bici que estuvo muy unida a la familia de la escritora. Este relato ha sido publicado en el libro *Bizikleta baten abenturak eta beste kontakizun batzuk* (varios autores) y publicado por la citada editorial.



Ba al zenekien?

25 kilometro ordutik gorako abiaduran, oinezko eta ziklista baten arteko talka batek zauri larriak eragingo dizkiola ez bakarrik oinezkoari baizik eta txirringulariari ere, Consumer Eroski egindako ikerketa baten arabera?

¿Sabías que...?

Un impacto entre un ciclista y un peatón a más de 25 km/h causa heridas graves no sólo al transeúnte sino también a la persona que viaja en bicicleta, según un estudio realizado por Consumer Eroski?



Bizikletaz

www.gipuzkoabizikletaz.net



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >>

GARAPEN IRAUNKORREKO
DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO SOSTENIBLE

gipuzkoako



bidegorriak